

ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Rs5. Eskola uzte goiztiarra

**Ikasketa mailarik gorena
DBHko graduatua (CINE 2)
duten eta ondorengo
irakaskuntza edo zein
prestakuntzarik (*) jasotzen ez
duten 18-24 urteko biztanleen
portzentajea.**

(*) Edozein ikaskuntza motarekin lotuta dagoen jarduera prestakuntzat hartzen da, araututa ala ez.


Eskola uztearen tasa oinarrizko kezka izan da beti Europako hezkuntza politiketan. Datu hori adierazle estrategiko modura erabili izan da, Luxemburgetako prozesuan ez eze, Lisboako prozesuaren jarraipena egiteko egiturazko adieraleen zerrendan ere.

Lisboako 2000ko martxoko Europako Kontseiluaren ondorioetan, eskola uzteari buruzko berariazko helburua finkatu zen: ikasketak uzten dituzten eta gehieneko prestakuntza maila oinarrizko bigarren hezkuntza (CINE-2) duten 18-24 adineko pertsonen kopurua erdira murriztera lortzea. Azken batean, eskola porrotaren aurka borrokatzea, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren osteko ikasketaren tasa igotzea eta biztaleriaren portzentaje bat jakintzaren gizartetik baztertuta gera dadin saihestea da kontua.

Adierazle honen Europako herrialdeetako bilakaerak beheranzko joera duen arren, jarritako helburua benetan handiguratsua dela pentsatu behar da, Europako kide diren zenbait herrialde 2010erako lortu nahi den %10eko portzentaje horretatik urrun baitaude.

2002 urtean, EB osatzen zuten 15 herrialdeen batez bestekoa 18,5ekoa zen, orain sartutako 10 herrialdeekin %16,5era jaitsi bada ere, herrialde horietan eskola uzten dutenen portzentajea EBko gainerako kideena baino nabarmen txikiagoa baita.

EAERI dagokionez, 1992-2002 tartean adierazle honen bilakera positiboa ikusi da, 1992ko eskola uztearen %25,4ko tasatik 2002an %12,6ra igaroz. Sexuen arabera bereiztuta ere zenbakiak argigarriak dira. Urte berean, emakumeen eskola uztearen tasa %8,1ekoa zen, gizonezkoena (%17,1) baino ia hamar puntu gutxiago, eta 2010erako jarritako helburutik beherakoa. Horrek guztiak esan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoa 2010rako jarritako helburua lortzeko jarrera onean dagoena.



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Rs5.1 taula

Eskola uztearen ehunekoa 18-24 urteko biztanleen artean, 1992-2002 tartean EAEn. Guztirakoa eta sexuen arabera bereiztuta.


Urteak	Eskola uzte goiztiarra		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak
1992	25,4	22,6	28,2
1993	23,1	17,2	29
1994	18,8	14	23,4
1995	18,2	13,6	22,7
1996	15,4	11,9	18,7
1997	16,6	13,6	19,5
1998	15,6	11,5	19,5
1999	13,9	10,3	17,4
2000	14	8,8	19,2
2001	15,1	9,5	20,5
2002	12,6	8,1	17,1


Rs5.1 grafikoa

Eskola uztearen ehunekoa 18-24 adineko biztanleen artean 1992-2002 tartean EAEn. Guztirakoa eta sexuen arbera bereiztuta.

Iturria: Eurostat

**EAEko eskola uztearen %aren bilakaera.
EBren helburua 2010<%10**





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Rs5.2 taula

Eskola uztearen ehunekoa 18-24 adineko biztanleen artean 2001-2002 tartean EBn

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa.		
	EB	
	2001	2002
Danimarka	8,8	8,4
Austria	10,2	9,5
Finlandia	10,3	9,9
Suedia	10,5	10,4
Belgika	13,6	12,4
Alemania	12,5	12,6
EAE	15,1	12,6
Frantzia	13,5	13,4
Irlanda	.	14,7
Holanda	15,3	15
Grezia	16,5	16,1
Luxenburgo	18,1	17
E.Batua	17,6	17,7
EB 15	18,9	18,5
Italia	26,4	24,3
Espainia	28,6	29
Portugal	44,3	45,5

Rs5.2 grafikoa

Eskola uztearen ehunekoa 18-24 adineko biztanleen artean 2001-2002 tartean EBn

Iturria: Eurostat

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa. EB. EBren helburua 2010<%10

